
OKUPAZIOA EGUNGO TESTUINGURU POLITIKOAN

OKUPAZIOARI BURUZKO DIAGNOSIA



DEFENTSA KOMUNITATEA

Defentsa Komunitatea gara, hainbat Langile Kontrolpeko Espaziok osatutako sarea. Gure helburua langile kontrolerako baldintzak jartzea da eta horretarako beharrezkoak diren kondizioak borrokatzea. Zentzu horretan, Gaztetxeen, Zentro Sozialen edota Zentro Sozialisten arteko elkartasuna bultzatzen dugu, kolpe errepresiboei batasunez erantzuten diegu, desalojoei aurre egiten diegu eta espazio berriei harrera egiten diegu. Okupazioa kriminalizatzeko saiakera dago martxan eta hura borrokatu eta agente desberdinek abiarazitako okupazioaren kontrako dinamikei erantzuten diegu. Dokumentu hau azken eginkizun horren barruan kokatzen dugu, okupazioak gizarte kapitalistan duen esanahaia mahaigaineratu eta espazioen auzian ematen den klase gatazka argitzeko pausu bat gehiago bezala.

2026ko urtarrila.

Aurkibidea

1 Laburpena

2 Sarrera

3 Okupazioaren aurkako ofentsiba: jabe handiek gidatutako tendentzia

4 Jabe txiki eta handien arteko aliantza politikoa

5 Faxismoa eta okupazioa

6 Jabetza pribatua eta okupazioa

7 Espazioen gaineko langile kontrola

8 Ondorio politikoak

1

Laburpena



1. Okupazioaren arazoa klase sozialei lotutako arazo bat da. Hiru jabetzatik gora dituenak soilik, klase jabedunak, okupazioa pairatu dezake. %0,11 da hutsik dagoen etxebizitza bat okupatzeko probabilitatea. Langileriak aldiz, ezin du okupaziorik pairatu. Bizi duen arriskua, etxekaleratua izatekoa da. Probabilitate bikoitza dago klase desjabetuak etxekaleratze bat bizitzeko, bere bizitoki bakarretik bidaltzeko, klase jabedunaren etxe hutseetako bat okupatzeko baino.

2. Okupazioaren bueltan sortutako alarma sozialean merkatu zabal bat aurkitu dute segurtasun pribatuko enpresek. Espainiako estatua munduko laugarren herrialdea da kamara instalazioei dagokionean.

3. Okupazioaren kontrako ofentsiba gizarteko aberastasunaren banaketa erregresiboago bat egiteko baliatzen du klase jabedunak. Izan, bitarteko juridikoak handituz (desalojo azkarrak, inkiokupazioa...), izan bertan sortu dezaken merkatua zabalduz (ate antiokupak, alarmak, seguruak...). Jabe txikiek ere, beraien pribilegio posizioa mantentzeko bide ezin hobe bat aurkitu dute bertan.

4. Klase ertaina eta burgesia langile klasearen aurka eta jabetza pribatuaren alde aliatzen dira klase jabedunen interesak eta pribilegioak defendatzeko. Jabe txiki eta handiz osatutako elkarteak, presio taldeak, desokupa bezalako enpresak edota alderdi politikoak dira horren erakusle nagusiak.

5. Etxebizitza bezalako oinarrizko beharrizanak asetu ezin izatea, aglutinatzaile sozial indartsu bat izan daiteke. “Okupa” figuraren irudi estigmatizatu bat sortuz, langileriak pairatzen dituen miserien erantzule bezala aurkezten da okupa. Horrela, espazioen auzian sortu daitekeen klase batasuna klase barneko zatiketarengatik ordezkatzen da.

6. Irabaziak mantentzeko beharrezkoa bihurtzen da biztanleriaren pobretze orokortu bat inposatzea eta langileria otzan bat sortzea. Horretarako, kapitalismoak bere aurpegi gordinena erakusten du eta bake soziala bermatzeko metodoa indar bidezkoa bilakatzen da. Okupazioaren kontrako ofentsibak eredu berri honi erantzuten dio.

7. Faxismoak paper garrantzitsu bat jokatzen du guzti honetan eta faxismoak okupazioaren aurkako diskurtsoa hegemonizatzean, gizartean pentsakera erreakzionarioa normalizatzea eta erradikalizatzea lortu du.

8. Ondorioz, langileriak dituen baldintza politikoak okertzen dira. Ez soilik bere aurkako posizio politikoak indartzen direlako eta langileriaren baitan banaketa bat bultzatzen duelako. Baita, langileriak espazioak erabili ahal izateko aukera galtzen duelako ere.

9. Okupazioaren eztabaida bi mugen artean kokatzen da egun. Batetik, jabetza pribatuaren elkartruke logika onartu behar da. Bestetik, horrek dakarren muturreko arriskua ekidin behar da: biztanleriak bizilekurik ez izatea. Ezkerreko nahiz eskuineko posizioak muga hauen baitan mugitzen dira.

10. Okupazioarengatiko eztabaida espazioen gaineko langile kontrolaren koordenatutan kokatzea beharrezkoa da eta honek langileriaren aginte gaitasuna antolatzea galdegiten du.

2

Sarrera



Azken urteetan okupazioaren aurkako ofentsiba bezala izendatu dugun joera ematen ari da estatu mailan. Ofentsiba horrek, eraginkortasun osoz hedatzeko beharrezko adar guztiak desplegatu ditu: mediatikoa, parlamentarioa, enpresa mundukoa nahiz ideologia erreakzionarioena. Bonbardaketa masibo hori, manipulatutako kasuekin, oinarririk gabeko baieztapenekin, lege aldaketekin, delituak nahastearekin, okupazioaren kontrako iragarki eta kanpainekin, biktimizatzen diren jabeen elkarteekin, influenzerrekin eta abarrekin izugarrizko eragina izaten ari da eta, neurri batean edo bestean, okupazioa gogorrago zigortzea gerturatzen ari da.

Google Albisteak begiratuta ikus daiteke bonbardaketa mediatikoaren tamaina 2024ko irailetik 2025eko irailera "ocupación ilegal" edo "antiokupa" hitza erabili duten 866 albiste egon dira, eta horrek eragin zuzena da bitzanleriaren pertzepzioan.

Linea Direktaren ikerketa[1] baten arabera, galdetegian parte hartutako %24ak bere etxebizitza okupatzeko arrisku ertain edo handia dagoela uste du. Hau da, lautik batek. %77ak aldiz arazo sozial bat dela uste du eta %73ak okupazioaren aurkako neurriak oso arinak direla. Galdetegian parte hartutako berdinen artean, ordea, %28ak egungo erregulazioaren inguruko noziorik ez duela onartzen du. Guztien artean %60ak neurri gogorragoak ezartzea ongi ikusten zuen eta %76ak kontratatuko luke okupen aurkako segurua.


Organización de Consumidores y Usuariosen (OCU) ikerketa[2] baten arabera, galdetegian parte hartutakoen %54ak okupazioa arazo bat dela uste du; %34ak arazo larria dela uste du eta %20ak arazoa bai, baina ez horren larria.

CISen azken barometroen arabera[3], aldiz, okupazioa estatuko 40 arazo nagusienen artean aurkitzen da, eta 2024ko irailetik 2025eko irailera arteko datuen arabera, %1,12arentzat okupazioa Espainiako estatuko hiru arazo nagusien artean kokatzen da. Hau da, krisi ekonomikoaren, langabeziaren, orokorrean arazo politikoen edota etxebizitza auziaren tamainako arazoa da okupazioa.


Google trends-eko datuak begiratzen baditugu ere, azken urteetan sarean egindako bilaketen bilakaera ikus daiteke. "Ocupación ilegal", "antiocupa" edo "antiokupa" bezalako terminoek, 2019tik aurrera beraienganako interesa gainontzeko tematikena baina askoz handiagoa izatea lortu dute, eta tendentzia gorakor hori izan dute egundaino.

Grafiko hauetan ikusi ahal da termino hauek sareetan izan duten bilakaera:


Ocupación ilegal



Antiocupa



Antiokupa



Europako herrialdeen artean, espainiako estatua 21. postuan kokatzen da etxebizitzetan jasotako lapurreten zerrendari dagokionean. Aldiz, 2. postuan kokatzen da etxebizitzetan izandako lapurreten preokupazioari dagokionean.

2020an etxebizitzetan emandako lapurretak



Lapurretak jasatearen kezka



Iturria: Agencia de Derechos Fundamentales de la Unión Europea

Okupazioa kriminalizatu eta kolpatzen duten agenteen zerrenda amaigabea da (desokupa, alderdi politikoak, hedabideak, segurtasun enpresak, jabedunak, bankuak...) baina guztien artean elementu konpartitu bat aurkitzen da: guztiek negozioa egin nahi dute.

Okupazioaren aurka egiten den kontakizunak errealitatearekin zerikusirik ez izanagatik ere, ikusten ari gara, epe labur nahiz luzeagoan okupazioaren aurkako ofentsiba izaten ari den eragina. Bada, beharrezkoa ikusten dugu Defentsa Komunitatetik, espazioen arteko elkartasuna antolatzetik haratago, okupazioaren kontrako ofentsiba borrokatzea. Izan bere izaera klasista mahaigaineratzen eta errealitatearen mapa osatu eta errepresentatiboago bat egiten, izan antolatzen dituzten kanpaina konkretuei aurre egiten.

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1. https://www.lineadirectaaseguradora.com/sala-de-prensa/-/linea-directa-aseguradora-estudio-okupacion-ilegal
2. https://www.ocu.org/vivienda-y-energia/comprar-vender-alquilar/noticias/encuesta-ocupacion
3. https://www.cis.es/es/estudios/catalogo?start=1&q=bar%C3%B3metro&fromDate=&from=%5B+now%5D&toDate=&to=%5Bnow-100y+%5D&sort=&catalogo=estudio

3

Okupazioaren aurkako ofentsiba

Jabe handiek gidatutako tendentzia



Nork pairatu dezake okupazio kasu bat?

Hedabideetan, instantzia judizialetan edota kale mailan okupazioaz hitz egiten denean, orokorrean usurpazio delituari egiten zaio erreferentzia. Beraz, okupazio delituaz hitz egiten ari garenean usurpazio delituaz hitz egiten ari gara. Askotan ordea, “allanamiento de morada” delituarekin nahasten da eta nahasketa hau erabiltzen da okupazioa desitxuratu eta kriminalizatzeko.



- **Allanamiento de morada**

Delitu hau, pertsona baten ohiko etxebizitzan indarrez sartzean ematen da. Hau da, bakoitzak bere bizitza garatzen duen etxebizitzan sartzerakoan. Jurisprudentziaren arabera, lehenengo eta bigarren etxebizitzek betetzen dute baldintza hau. Hemen defendatzen dena pertsonaren intimitaterako eskubidea da. Hau da, pertsona orok eduki beharko luke bere jardun pribatua gauzatzeko, intimoak zaizkion gauzak gordetzeko edo abizi-jarduerak segurtasunez eta inoren bortxarik gabe gauzatzeko espazio seguru bat. Horrenbestez, hemen zigortzen dena ez da jabetza pribatuaren aurkako delitu bat, pertsona ororen integritatearen aurkako delitu bat baizik.

Kasu hauetan poliziak berehala desalojatzen du espazioa, epaile baten bitartekaritza beharrik gabe. Beraz, ospitalean ingresatuta egon ostean etxera bueltatu eta etxebizitza okupatuta duen jabearen kasua edo ogia erostera joan eta bueltan etxebizitza okupatu dioten amonaren kasua ezinezkoak dira bere baitan.

Kasu hauetan ez da okupaziorik ematen, allanamiento delitua baizik, eta poliziaren erantzuna berehalakoa da.

- **Usurpazioa**

Usurpazioa aldiz, erabilerarik gabeko edo abandonatutako espazioetan ematen da. Beraz, allanamiento ez diren kasuak izango dira okupazio kasuak; orokorrean, hirugarren jabetzatik aurrera ematen direnak, alegia. Kasu honetan, jabetza pribatuaren aurkako delitu baten aurrean aurkitzen gara, jabe juridikoari

bere jabetza nahieran erabiltzea oztopatzen baitzaio.

Delitu hau, 3 hilabetetatik 6 hilabetera bitarteko isunarekin zigortuta dago. Hala ere, prozedurak irauten duen bitartean okupatuta dagoen etxebizitzarekin nor geratzen den ebazteko prozedura ere existitzen da. Kasu horietan, okupatutako etxebizitza jabe txiki batena bada eta galerak sortzen ari bazaizkio, justizia espazioaren jabe juridikoaren alde posizionatu ohi da eta, behin-behinean, epaiketa bukatu bitartean, okupatzen ari den pertsona desalojatzen da.

Horrez gain, 2018an lege antiokupa bezala ezagutzen dena onartu zuten. Bertan, "jabe txikiei"[1] zein irabazi asmorik gabeko jabeei, desalojoak azkartzeko bitartekoak eskaini zitzaizkien.


Azkenik, jabe txikiek aurretik aipatu berri ditugun bi baliabide horiek modu egokian erabili ahal izateko eta okupazio kasuen aurrean poliziaren aktuazio optimo bat izateko bi instrukzio atera zituen barne ministerioak 2020ean[2]. Beraz, desalojo kautelarren bidea eta poliziaren formakuntza okupazioari dagokionean, estatuaren partetik ongi kubritutako beste bi aspektu direla esan dezakegu.

Horrenbestez, usurpazio kasuak hirugarren etxebizitzak (edo gehiago) dituzten jabeen artean ematen dira orokorrean, eta jabe txikiek, ohiko bidetik haratago, beraien jabetzak berehala berreskuratzeko bitartekoak ere badituzte.

- **Inkiokupazioa**

Bi delitu horiez gain, alokairuen ordainketa eza ere okupazio bezala izendatzeko saiakera abiarazi dute agente desberdinek. Horrela, alokairuan ordainketa bati aurre egin ezina okupazio gisa tratatzea nahi du klase jabedunak, maizterrak kalera botatzeko bitarteko gehiago izan ditzaten. Azken urteetako joera ikusten badugu, ikus dezakegu alokairu merkatuak izugarrizko garapena izan duela, eta okupazio kasuak baino, ez ordaintze egoera gehiago daudela. Honek azaltzen du etxejabeek duten insistentzia okupazioa gero eta gogorrago zigortzeko.


2021ko etxekaleratzeak eta okupazioak



- **Higiezinen errealitatea Espainiako estatuan**

INEren arabera 2021ean estatu mailan 26.623.708 etxebizitza zeuden eta horietatik 18.539.223 lehenengo bizitokiak ziren. 3.837.328 etxebizitza hutsik zeuden, %14,41a, eta bigarren etxebizitzak edo noizbehinkako erabilerakoak 3.458.435 ziren, %12,99a[3].

Espainiako etxebizitzak



Fotocasaren 2023ko txosten baten arabera[4], biztanleriaren %60a da bere bizilekuaren jabe, nahiz eta %76ak bere jabetzakoa den etxebizitza batean bizi dela dioen. Hau, jabetza unitate konbibentzialeko pertsona baten izenean soilik edukitzeagatik ematen da. Gainontzeko %24a alokairuan bizi zen 2023an. Jabeak diren %60 horretatik %80a (5etik 4) etxebizitza bakar baten jabe da; %16a bi etxebizitzen jabe da; eta, azkenik, falta den %4a hiru etxebizitza edo gehiagoren jabe da, eta horietatik %27k mantentzen du etxebizitzaren bat hutsik.

Altuera hauetan erabili izan ohi den beste tranpa bat da esatea espainiako estatuko higiezinen merkatuan gehiengoa jabe txikiak direla. Hori ez da gezurra, baina, hori esatean jabe handiek duten nagusitasuna gezurtatzea bilatzen dute. Kontuan izan behar dugu, ordea, bi gauza desberdin direla jabeen gehiengoa jabe handiak edo txikiak diren eta jabetzaren zein zati kontrolatzen duen bakoitzak.

Idealistaren arabera, alokairuan dauden etxebizitzen %4,4a hiru entitatek kontrolatzen zuten 2022an[5]. Civioren arabera, berriz, 11 autonomia erkidegotako datuak jasota, hau da, 6 autonomia erkidegotako datuak falta izanda ere, 50 jabetza baino gehiago pilatzen dituzten 738 enpresa edo talde enpresarialek alokairuan dauden 178.000 etxebizitzen langa gainditzen dute, merkatuaren %10etik gertu. Bi jabe nagusiak CaixaBank (21.815 etxebizitza alokairuan) eta Blackstone (19.638 etxebizitza alokairuan) izango lirateke[6]. Gainera, jabetza kontzentrazio hau handitu egiten da interes ekonomikoko eremuetan.

Adibidez, Donostian 300 jabe handik alokairuan dauden etxebizitzen %30a alokatzen dute[7]. Madrilen 50 jabetatik gorako 372 talde enpresarialek alokairu merkatuaren ia laurdena kontrolatzen dute, eta 10 nagusienen artean horien erdiak[8]. Bartzelonan aldiz, jabe handiek merkatuaren %29,6a kontrolatzen zuten 2023an[9].

Alokairuko datuetatik haratago joanda zaila da datuak aurkitzea, baina azken urteetan putre funtsek egin dituzten erosketak ikusita jabetza kontzentrazioa oraindik eta handiagoa izan daitekeela pentsa daiteke. Adibidez, Banco Santanderrek, CaixaBankek, BBVAk eta Banco Sabadellek 400.000 etxebizitza baina gehiago saldu zizkioten Cerberusi, Lone Star-i eta Blackstoneri 6 operazioetan bakarrik, 2015 eta 2018 bitartean[10]. Horrez gain, Blackstonek gutxienez beste 146.320 etxebizitza eta 81.095 mailegu erosi zituen, zehaztezina den beste promozio erresidentzial eta eraikitzeko lurrekin batera[11].

Bestalde, katastroko datuak erabiliz, El Pais egunkariaren arabera, 2021ean Espainiako estatuan 10 higiezin edo gehiago zituzten 290.758 jabe zeuden, EAE eta Nafarroa kontutan hartu gabe. Madrilen, 10 higiezin baino gehiago dituzten 26.573 titular daude, Bartzelonan 25.640, Valentzian 16.147, Alikanten 13.157, Murtzian 11.496, Balearretan 9.272 eta Las Palmasen 8.43515[12].

Jabeak higiezin kopuruaren arabera

	11-25 higiezin	26-50 higiezin	50 higiezin baino gehiago	Guzira
Madrid	21915	2940	1718	26573
Bartzelona	20953	3060	1627	25640
Valentzia	13864	1497	786	16147
Alikante	11163	1303	691	13157
Murtzia	9596	1300	600	11496
Balearrak	7687	1083	502	9272
Las Palmas	6727	1030	678	8435

Ikerketa Sozialisten Institutuak (ISI) "Euskal Herriko klase sozialen kuantifikazio, hurbiltze-saioa" ikerketaren arabera[13], klase kapitalista kuantifikatzeko irizpidea lan egin beharretik askatzeko gaitasunean datza, izan egiazki honela egiten duen edo potentzialki horretarako gaitasuna duen. Ikerketa berean ezartzen diren adierazleen arabera, pertsona baten bizi beharrak asetzeko diru sarrerak 21.700€ dira urteko. Etxebizitza baten batazbesteko alokairu prezioa 744,4€koa da estatu mailan eta horrenbestez 2,43 etxebizitza alokairuan dituen jabeak klase kapitalistaren parte izango lirateke.

Grupo de Estudios Críticos Urbanos taldeak egindako "El mercado de alquiler: fuente de desigualdad social" ikerketan[14], aldiz, 2011tik 2023ra alokairuen prezioa etxeetako errentak baina 2,3 gehiago hazi direla ikus daiteke. Gainera, egun alokairuan bizi diren biztanleak %24,1 izatera iritsi dira18, %153,68 haziz 2018arekin alderatzen badugu, orduan etxebizitza guztien %9,5a baitzeuden alokairuan. Hau da, errenten transferentzia erregresibo bat ematen da maizterretatik etxejabeetara.

Gainera, ikerketa berak erakusten du alokairuan bizi direnak direla biztanleriaren sektore txiroena urteko bataz besteko errentak konparatzen baditugu. Etxejabeen errenta 50.604€-tik 56.473€ bitartekoa da, alokairuan bizi direnena 19.758€-tik 26.288€ bitartekoa den bitartean. Hau da, urte guztiko etxebizitzen alokairuen errenta kenduta ere, etxejabeek alokairuan bizi direnen errenta bikoitza izango lukete eta etxebizitza bat jabetzan dutenena baina errente altuagoa ere bai, azken hauena 30.000€-36.413€ baita ikerketaren arabera.

Proviviendak egindako "Prevención y atención de la exclusión residencial: factores explicativos" txostenean[15] ere egoera txiroena alokairuan bizi direnena dela ondorioztatzen da. Honen arabaera, hipoteka bati aurre egiten diotenen %11,3a dago pobrezia egoeran (eta hauek ez dira gorago aipatu ditugun etxeja-



beak), alokairuan daudenen portzentaia %37,8ra iristen den bitartean. Gehiegizko esfortzu ekonomikoari dagokionean, berriz, aldea handiagoa da. Jabeen %9k egin behar du ahalegin extra hori, alokairuan daudenen %47,5ak egin behar duen bitartean.

Espainiako bankuaren[16] arabera ere alokairuan bizi direnen %40,9ak bere soldataren %40a baino gehiago bideratzen du alokairura. Orokorrean, txiroenak diren bi sektore horiek familia migranteak eta gazteak dira.

Azkenik, INEko okupazio datuei begiratuta, usurpazio delituengatik egondako kondena kopurua 2022an 4067koa dela ikus dezakegu, “allanamiento de morada” kondenak 255 izan ziren bitartean[17].

Gorago aipatu bezala, 2021ean 26.623.708 etxebizitzetatik 3.837.328 hutsik zeuden, eta INEko datuak begiratuz gero, 2021ean usurpazioagatik 4.302 kondena egon zirela ikus dezakegu. Hau da, etxebizitza guztien %0,016a okupatu ziren, eta etxebizitza huts guztien %0,11. Berriro aipatuko dugu: lehenengo ehunekoa ez da pertsona batek okupazio kasu bat jasotzeko duen probabilitatea, biztanleriaren ehuneko handi batek ezin baitu okupazio kasurik pairatu. Probabilitateaz hitz egin nahi bada, etxebizitza bat edo gehiago hutsik dituen kapitalistaren espazio bat okupatzeko arriskuaz hitz egin beharko litzateke eta hori %0,11koa da erabilitako datuen arabera. Hau da, biztanleriaren ehuneko handienak %0ko probabilitatea du okupazio kasurenbat pairatzeko, ezinezkoa baita alokairuan bizi bazara edo etxebizitza baten jabe bazara okupazio kasu bat pairatzea. Aldiz, hutsik dauden etxebizitzen kasuan %0,11koa da probabilitatea.

Aldi berean, etxegabetze kasuak 2021ean 41.359 izan ziren[18]. INEren arabera 18.539.223 bizitoki zeuden 2021ean[19]. Beraz, ikus dezakegu, bizitokitik bidali eta kalean gelditzeko ehunekoa, gutxienez etxebizitza bat abandonatuta duen kapitalistari okupatzearen ehunekoaren bikoitza dela. Eta ez hori bakarrik, klase kapitalista bera da etxekaleratze horiek egiten dituena familia txiroenen soldatak harpilatzen ari direlako.

Beste modu batera esango dugu. Komunikabideek, segurtasun pribatuko enpresek nahiz alderdi politikoek saltzen duten arriskua baino %17.982 aukera gehiago daude etxegabetua izateko. Hau da, ogia erostera joan eta etxea okupatzeko baina %17.982 aukera gehiago daude etxakaleratze bat pairatzeko. Izan ere, agente guzti horiek saltzen duten arriskua “allanamiento de morada” arriskua da, eta hauek 230 kasu izan ziren 2021ean.

Erakusgarria da, baita ere, 2022an pisu turistikoak %23 handitu zirela[20]. 41 etxebizitza turistiko berri egunean. Urte bereko okupazioengatiko desalojo datuei begiratzen badiegu (4067 desalojo) ikusiko dugu egunean 11 desalojo esan nahi duela horrek, etxebizitza turistikoak baina 4 aldiz gutxiago.

Beraz, okupazioarekin sortzen den alarma alderantzizkoa dela nabari da, hura pairatu dezaketena ez baita biztanleria orokorrean, gutxienez hiru etxebizitza dituen eta horietakoren bat abandonatua duen burgesia baizik. Kontrara, biztanleriaren zati txiroenak edo, gutxienez, alokairuan bizi denak, gutxienez biztanleriaren %24,1ak, duen arriskua beren etxejabeengatik kaleratua izatekoa da.

- **Higiezinen merkatuaren inguruan mugitzen ari diren enpresen eragina**


Beste interes ekonomiko batzuek ere paper garrantzitsua jokatzen dute okupazioaren aurkako diskurtso guzti honetan. Espainiako estatua Europako lehen herrialdea da instalatutako alarma kopuruari dagokionean, eta laugarrena mundu mailan, Japoniaren, Estatu Batuen eta Txinaren atzetik[21].

DBK INFORMA behatoki sektorialaren arabera, 2023. urtea 3,1 milioi alarma instalatuekin itxi zuen sektoreak[22] eta 2021ean instalatutako alarma guztien %59,8 bezero erresidentzialei zegozkien[23].

Asociación Profesional de Compañías Privadas del Servicio de Seguridad-ek (APROSER) ateratako 2022ko segurtasun pribatuko enpresen informearen arabera, Espainiako estatuan 2022an izandako fakturazioa 4.622.000.000€-koa izan zen, horietatik 2.742.000.000€ bigilantziako adarrari dagokiona eta beste 1.579.000.000€ alarma eta sistemei dagokiona[24]. Gainera %37,78-ko hazkuntza izan du 2015etik. Horrez gain, segurtasun pribatuko sektorearen kontzentrazio bat ematen ari dela ere ikusten da. Espainiako estatuan, 5 operadora nagusiek kontratu guztien %79a kontzentratzen dute[25].



Fakturazioaren bilakaera



Alarma sozial hau zabaldu eta bertatik negozioa egiten duten segurtasun enpresek paper garrantzitsua jokatzen dute beraz. Segurtasun pribatuko enpresek lehen etxebizitzetarako lapurreten aurkako eta okupazioen aurkako alarmak, zerrailak, ateak eta abarrak atera dituzte.

Ikusi dugun bezala, ordea, lehenengo etxebizitzetan ezin da okupaziorik eman. 2023-an, berriz, Linea Directak okupazioen kontrako etxeko seguru bat atera zuen eta, orain, seguru etxeen arteko lasterketa bat bilakatzen ari da[26]. Linea Directaren arabera, enpresaren antiokupa segurua kaleratu zutenetik 100.000 poliza komertzializatu zituzten urtebetean eta aseguratu berrien %65 inguruk txertatu zuen produktua bere etxeko seguruan[27].

Horrez gain, sektoreak Espainiako estatuko komunikabideetan duen esku-hartze gaitasuna nabaria da eta horren erakusle da Prosegur-eko presidentea izan zenak 10 urtez konpartitu izana segurtasun enpresa horretako kargua eta Mediaseteko kontselari kargua[28].

Ondorioak

Okupazioaren arazoa klase sozialei lotutako arazo bat da. Horietatik klase bat da okupazioa pairatu dezakeena, klase kapitalista. Aldiz, desjabetuen errealitatea jabedunei ordaintzeko egin beharreko sobreesfortzua, jabedunek abiarazitako kaleratzeak eta okupatzeagatik jasandako kriminalizazioa eta kondenak dira.

Klase sozial desjabetuak, langile klaseak, okupazioaren aurkako alarma soziala barneratu, okupazioaren inguruko bertsio distortsionatua onartu, gogorrago zigortzeko beharra aldarrikatu, okupazioa kriminalizatu eta abarrak egitea, bera zapaltzen duen klase kapitalistaren interesak defendatzea da; bankuen, inbertsio fun- tsen, segurtasun pribatuko enpresen, jabe handien eta berau zapaltzen duten jabeen interesak defendatzea.

Beharrezkoa da langile klasea miseria handiagora bultzatzen duten elite ekonomikoen jarduna borrokatzea eta okupazioa kriminalizatzearen atzean ezkutatzen den elite ekonomikoaren menderakuntza politika berria argitara ateratzea.



Jabe handien oldarraldia gelditu!

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1. Hemen jabe txiki deitzen diogu aipatutako legea erabili ahal dutenei zuzentzeko. Izan ere, orokorrean, jabetza kopuru bat ezarri izan ohi da jabe handia zer den zehazteko eta hortik beherakoei jabe txiki deitu izan zaie. Etxebiziztza legea atera artean, 2022-23 jabe handiak 15 jabetzatik gorakoak ziren. Gaur egun 10 jabetzatan kokatzen da muga hori. Jabe hauei jabe txiki deitzea ez doa bat txosten honetan jabe txiki izatea aurkezten denarekin. Aurrerago aipatuko den moduan, 3 jabetza edo gehiago izateak lan egin beharretik askatzeko gaitasuna ematen dio jabeari eta errentetatik bizi izatea ahallbideratzen dio. Beraz, 3 jabetzatik gora dituztenak burgesiaren klase sozialekoak dira eta ez ditugu jabe txikiak kontsideratzen. Bereizketa hau egitea garrantzitsua da, ondoren, masa hedabideetan bere etxebizitza jabetzan duenari zuzentzeko jabe txiki terminoa erabiltzen delako eta termino anbiguo horren pean errealitatea desitxuratzen delako.

2. https://www.boe.es/boe/dias/2020/09/25/pdfs/BOE-A-2020-11243.pdf ; https://www.icpb.es/imgnewsletter/Annex_avis_338-20_Secretaria_de_Estado.pdf

3. https://www.ine.es/prensa/censo_2021_jun.pdf

4. https://s36360.pcdn.co/wp-content/uploads/2023/05/radiografia-mercado-vivienda-SP-2022-2023.pdf

5. https://www.idealista.com/news/inmobiliario/vivienda/2022/02/10/794782-los-mayores-caseros-de-espana-como- caixabank-o-blackstone-incrementan-su-cuota-de-mercado-al-4-4

6. https://civio.es/2024/04/02/caixabank-y-blackstone-los-dos-mayores-caseros-del-pais-suman-cerca-de-41-dot-400- viviendas-alquiladas/

7. https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/300-grandes-propietarios-3000-pisos-alquiler-donostia-20240727070120-nt.html

8. https://civio.es/2023/06/21/diez-empresas-concentran-el-12-percent-de-los-inmuebles-alquilados-en-la- comunidad-de-madrid/

9. https://idrabcn.com/es/publicacion/como-afectara-el-control-del-precio-de-los-alquileres-a-los-caseros/

10. https://www.elsaltodiario.com/fondos-inversion/deuda-creditos-morosos-fondos-inversion-conquistaron-europa

11. https://www.elsaltodiario.com/vivienda/operacion-hercules-caixa-fondo-buitre-blackstone-imperio-fronteras

12. Elmundo.es/economia/2021/10/06/615c-9d7afc6c83550e8b4572.html

13. https://isi.eus//pdf/Euskal%20Herriko%20klase%20sozialen%20kuantifikazioa%20hurbiltze-saioa.pdf

14. https://estudioscriticosurbanos.com/wp-content/uploads/2024/04/El-mercado-de-alquiler-fuente-de-desigualdad- social-2.pdf

15. https://www.provivienda.org/wp-content/uploads/prevencion-y-atencion-de-la-exclusion-residencial.pdf

16. https://www.eldiario.es/economia/mitad-inquilinos-riesgo-pobreza-alquileres-disparados-bajos salarios_1_10190180.html

17. https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=25997&L=0

18. https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Estadistica-Judicial/Estudios-e-Informes/Efecto-de-la-Crisis-en-los- organos-judiciales/

19. https://www.ine.es/prensa/censo_2021_jun.pdf

20. https://cincodias.elpais.com/companias/2023-05-02/las-viviendas-turisticas-se-disparan-en-el-ultimo-ano-se- abrieron-41-al-dia.html

21. https://www.xataka.com/magnet/espana-pais-europa-alarmas-instaladas-tambien-tiene-uno-indices-criminalidad- bajos

22. https://elnuevodigitalmurcia.es/art/1108/espana-supera-por-primera-vez-los-tres-millones-de-alarmas-conectadas-a- centrales-receptoras#:~:text=El%20observatorio%20sectorial%20DBK%20de,la%20variaci%C3%B3n%20fue%20del%203%25.

23. https://www.europapress.es/economia/noticia-parque-alarmas-espana-crece-2021-286-millones-doble-siete-anos- informa-20220329103326.html

24. Aproser.es/web/wp-content/uploads/2023/10/Aproser_Diptico_2022_DEF.pdf

25. https://www.europapress.es/economia/noticia-parque-alarmas-espana-crece-2021-286-millones-doble-siete-anos- informa-20220329103326.html

26. https://www.eldiario.es/economia/aseguradoras-aprovechan-discurso-antiokupas-crear-nuevo-nicho-negocio_1_10537618.html ; https://www.huffingtonpost.es/sociedad/empieza-guerra-oculta-aseguradoras-miedo-okupacion.html

27. https://www.huffingtonpost.es/sociedad/empieza-guerra-oculta-aseguradoras-miedo-okupacion.html

28. https://www.youtube.com/watch?v=5cV8hAp-8wI Aukerak giltzapean.

4

Jabeen arteko aliantza politikoa

Jabe txiki eta handien arteko aliantza politikoa



Jabe ertain eta txikiek errealitate konplexu bat bizi dute. Klase ertainen deskonposoizioa ematen ari den garaiotan elite ekonomikoaren oldarralditik babestea lortu behar du, baina era berean elite horren iniziatiba baliatuz. Hau da, klase ertain izaerak ematen dizkion pribilegioak aprobetxatuz elite ekonomikoa inposatzen ari den tendentzia baliatu eta proletargoaren kontura bere pribilegioak mantentzea lortu behar du. Klase ertainaren helburu nagusia hori baita, bere pribiligeioei eustea eta bere pobretzea ekiditea.

Ildo horretatik, askotan jabe txiki eta ertainak dira proletalgoarekiko jarrera bortitzenak eta erreakzionarioenak hartzen dituztenak. Izan ere, elite ekonomikoaren tendentziari heltzen dio baina elite ekonomiko horren baliabideak eduki gabe. Ez du espekulazioa bultzatzeko adina jabetza, bere jabetzen etekinen dependentzia dela eta ezin ditu denborak gehiegi luzatu, ez du abokatu buffet handi bat kasuei patxadaz eta era sistematizatuan erantzuteko, eta abar. Posizio pribilegiatuak gutxitzen doazen heinean, gogorragoa eta bortitzagoa bilakatzen da posizio pribilegiatu horiengatiko borroka.

Hori dela eta, merkatuaren “funtzionamendu ona” oztopatzen duen edozein traba ahalik eta modu azkarrenean gainditu behar du, bitartekoak direnak direla ere. Horren adibide garbia da Desokupa enpresena. Hauek, paper ideologiko handi bat betetzeaz gain, jabe txiki eta ertainentzat tresna ezin hobeak dira, jabe txikiei askoz komenigarriagoa baitzaie 3000€ ordaindu eta astebetean jabetza berreskuratzea urtebeteko prozesu judizial bati aurre egitea baino. Beste adibide bat jartzearren, jabe txiki eta ertain hauek izango dira justiziaren “makaltasuna” gehien sufritzen dutenak eta, horrenbestez, legearen gogortzea edota poliziaren jarduteko askatasuna sutsuki eskatuko dutenak.

Okupazioaren kasuan, desalojo azkarra eskura daukate, eta erabiltzen ari dira, baina azkartasun berbera bilatzen dute “inkiokupa” figuraren bitartez, etxebizitza bat ordaindu ezin duena aterperik gabe utzi eta beste familia bati diru-sarrerak xurgatzen jarraitzeko.



Klase ertainaren erantzuna ez da kapitalismoaren aurka zuzentzen, bere pobretze prozesuaren aurka baizik, bere energiak kapitalismoaren interesen alde eta langileriaren kontra bideratuz. Zentzu horretan, klase ertainak eta elite eko-

nomikoak interes komunitate politiko bat osatzen dute. Elite ekonomiko horrek higiezinen merkatuaren etorkizuna definitzeko urratsak ematen ditu. Horren adibide dira IIF presio taldeak 2008ko krisi ekonomiko ostean jokatutako papera[1]. Jabe ertain eta txikiek, nahi ala ez, olatu hori hartu behar dute eta bere interesetara moldatu.

Horrela, adibidez, alokairuen merkatuarengatik apostu bat ematen da eta azken hamarkadan alokairuen prezioa batezbeste %77 igo da. Hazkuntza hori etxeetako ekonomiena baina 2,3 puntu handiagoa izatean alokairuak ordaintzeko arazoak handitu dira, eta jabe txikiek errealitate horri aurre egiteko antolatu beharra izan dute, hau da, beraiei egindako ez ordaintzeei erantzuteko.

Horren adibide nagusiak dira jabe txikien elkarte bezala aurkezten direnak. Bertan jabe txiki asko elkartzen dira, baina baita jabe handiak ere, eta gertukoagoa den errealitate horretan beraien interesak defendatzeko tresnak antolatzen dira eta presio talde bezala funtzionatzen dute.

Elkarte hauen parte izatean adibidez, zerbitzu juridikoak elkarbana- tzen dira, edota ez ordaintzeen aurkako kutxak antolatzen dituzte. Presio talde moduan, aldiz, inkiokupazioa bezalako kontzeptu berriak sortzen dituzte, ez ordaintzeak okupazio termino barruan txertatzeko eta okupazioaren aurka dagoen legedi berbera aplikatzeko. Edota kolaborazio publiko-pribatuarekin gobernuaren politiketan eragiten dute. Guzti horrekin batera ere, okupazioaren aurkako legea gogortzea eta bide judiziala liberatzea eskatzen dute. Talde hauen adibide ezagunena ASVAL (Asociación de Propietarios de Vivienda en Alquiler) izan daiteke.



ASVALen parte dira, adibidez, Blackston, Idealista, Servihabitat, Asociación de Promotores y Constructores de España (APCE) eta abar[2], eta horiekin batera beste 6.000 etxejabe inguru[3]. Bazkideen %95 inguru pertsona fisikoak izanagatik ere[4], elkartearen gidaritza jabe handien eskuetan dago. Besteak beste, 100 jabetza dituzten jabeak ohorezko kideak direlako eta horiek direlako ASVALeko zuzendaritza-karguak okupatzeko, proposamenak egiteko edota komisioen parte izateko eskubidea dutenak, bere estatutuen 9. artikuluan

zehazten den bezala[5].

Gainera, horrez gain partaide bakoitzak dituen etxebizitza adina bozka eskubide du eta 2021eko datuen arabera Blackstonek elkartearen ia etxebizitza guztien erdiak izango lituzke[6].

Aipatu beharra dago, orokorrean, jabe handiak eta txikiak elkartzen dituzten elkarteetan norabidea ezartzeko gaitasuna jabe handiek izaten dutela. Hau da, bi jabetza dituzten 2000 jabe txiki, 700 jabetza dituzten 4 jabe handirekin elkartzen badira, jabe handi horiek izango direla, inforrmazio, gaitasun eta zeresan handiena izango duten agenteak, nahiz eta 2004 jabez osatutako talde horretan %99,91a jabe txikiak izan.

Horrenbestez, sinbiosi horretan alde bakoitzak lortzen duena ondorengoa da:

Jabe txikiek, beraien jabetzei edo maizterrei etekin handiagoa atera ahal izateko gaitasun eta tresna gehiago izatea eta errealitatea bere interesetara gehiago gerturatuko duen errepresentazio bat izatea.

Jabe handiek, jabe txiki eta ertainen informazioaren zentralizazioa eta aldaketak inposatzen joateko maskara “herrikoi” bat izatea.

Gainera, gizarteko kapa xumeenen kontrako jarrera bortitz horiek hartzen ari den klase jabedun hori da alderdi politikoek instituzioetan errepresentatzen dutena. Dagoeneko, 19 lege proposamen[7] eta hainbat emendakin egin dituzte kongresuan, eta ondorengoak dira eskatzen dituzten neurri nagusiak:

• **Neurri diziplinatzaileak**

- Zigorrak gogortzea
- Okupari hornidurak moztu ahal izatea
- Eskubideak kentzea (erroldatzekoa, helbide bat izatekoa...)

• **Okupazioa borrokatzeko baliabideak handitzea**

- Poliziak jarduteko baliabide juridikoak (polizia propioa, aktuazio zuzena)
- Jabeentzako baliabide juridiko gehiago ematea (desalojo azkarra eskuragarri jabe guztientzat)
- Prozedura azkartzea
- Hirugarren pertsonek okupazioa salatu ahal izatea (udaletxea, bizilagunek)


• **Talde kriminalak eta okupatzeko laguntza zigortzea**

- Okupazioa bultzatzen duten taldeak talde kriminal kontsideratzea
- Talde horietako baten esanak jarraitu izana zigortzea
- Okupatzearen aldeko mezuak, babesa eta abarrak zigortzea

Neurri guzti horiek ez dira harritzekoak. Izan ere, alderdi politikoei begiratzen badiegu ikus daiteke...


...klase jabedunez osatuak daudela. Legealdi honetako parlamentarioen artean 126k aitortu dute alokairuren bat kobratzen dutela. Horrela, parlamentarioen % 20,45ek alokairuko etxebizitza bat dute, biztanleriaren batez bestekoa (% 5,81[9]) baino ia lau aldiz gehiago.

Etxebizitza kopurua errentan



...instantzia supraestatalen menpe daudela. 2019-2024 bitartean onartutako iniziatiba legegileen %53a Europan hartutako erabakietatik etorri ziren eta 2023an onartutako guztien %72a[10]. Beste adibide argi bat da 2008ko krisi ekonomikoaren ostean hartzen diren neurrien atzean IIF (Institute of International Finance) bezalako presio taldeak edota EPRA (European Public Real Estate Association) aurkitzea.

Espainian onartutako lege-ekimenak, Europako jatorriaren arabera



...beraien karrera politikoaren ostean enpresa desberdinetan leku bat bilatzen dutela. Ate birakarien fenomenoa aski ezaguna da, eta politikariek, beraien lanbidean egin beharreko gestioak egiteaz gain, postu hori baliatzen dute etorkizunean enpresaren batean entxufatzeko. Adibidez, ASVALeko kasua oso esanguratsua da. Elkartearen azken bi presidenteak PSOEko etxebizitza sailarekin zerikusia duten postuetatik zuzenean joan dira elkarteko alkatetzara, Joan Clos eta Helena Beunza. Azken hau, beste PSOEko kargu bat atzera bota ostean, bere postuak sortutako ika-mika dela eta.

...klase ertainaren desintegrazioa amortiguatzen dutela, azken instantzian langile klasearen kontura.

Beraz, alderdi politiko hauek langileriarentzat dituen mugak nabariak dira.

Aski erakusgarria da, baita ere, SAREBen sorrera. Sociedad de Gestión de Activos Procedentes de la Restructuración Bancaria, SAREB bezala ezagunagoa, 2008ko krisi ondoren bankuen aktibo toxikoak diru publikoz erosteko mugimentua izan zen, konkretuki 52 mila milioi euro bideratu ziren. Garaiotan hartutako beste neurri batzuk tarteko, bankuak erreskatatzeko eta putre funtsen sarrera bultzatzeko balio izan zuen. Eta hori gutxi ez balitz, bere gestioa banku eta inmobiliaria pribatuen eskuetan utzi zen, bankuen erreskatea ematen zen bitartean eta putre funtsen sarrera bultzatzen zen bitartean, gestioaren etekinak poltsikoratzeko. 2010eko hamarkadan ematen den etxekaleratze olatu guztia, ordaindu ahal zitekeen prezioa zen erakunde publiko hauentzat. Betiko

moduan, langileria baita hori ordaintzen duena.



Ondorioak

Aurreko zikloko pribilegio ekonomikoak deusestatzen ari diren honetan, klase ertaina eta burgesia langile klasearen aurka eta jabetza pribatuaren alde aliatzen dira klase jabedunen interesak eta pribilegioak defendatzeko.

Bigarren edota hirugarren jabetzaren menpeko den etxejabeak, ezin dio uko egin jabetza horrek ematen dion irabaziari bere pribilegioak mantentzeko eta, askotan, bera da neurri gogorrenak exijitzen dituena eta jarrera bortitzenak hartzen dituena.

Edozein preziotara ere jabetza pribatua babesten da, hori baita jabeei apropiazio eskubidea ematen diena. Erakunde guztietatik egiten da saiakera hori eta puntu komun horren gainean eraikitzen da klase estratu desberdinen sinbiosia langileriaren estratu baxuenaren aurka.



Jabe txiki eta handien arteko aliantza politikoa suntsitu!

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1. https://www.youtube.com/watch?v=5c-V8hAp-8wI**2.** Ley antiokupa
2. https://www.idealista.com/news/inmobiliario/empresas/2021/05/26/790652-asval-suma-3-000-asociados-en-su- primer-ano-de-vida-y-se-propone-llegar-a-10-000
3. https://www.elmundo.es/economia/vivienda/2024/01/31/65ba9016e4d4d8be7c8b45c2.html
4. https://www.idealista.com/news/inmobiliario/empresas/2021/05/26/790652-asval-suma-3-000-asociados-en-su- primer-ano-de-vida-y-se-propone-llegar-a-10-000
5. Asval.com/wp-content/uploads/2020/05/ASVAL-Estatutos-web.pdf
6. https://www.idealista.com/news/inmobiliario/vivienda/2024/04/02/816386-caixabank-y-blackstone-son-los- mayores-caseros-de-espana-con-41-000-viviendas; ; https://www.idealista.com/news/inmobiliario/empresas/2021/05/26/790652-asval-suma-3-000-asociados-en-su-primer-ano-de-vida-y-se-propone-llegar-a-10-000
7. Grupo parlamentario Pluralek 2 proposamen, Alderdi Popularrak 5, Vox alderdiak 4, PSOEk 1, Senatuak 2, Juntsek 1, EAJk 1 eta Ciudadanosek 3
8. https://sede.agenciatributaria.gob.es/AEAT/Contenidos_Comunes/La_Agencia_Tributaria/Estadisticas/Publicaciones /sites/irpf/2022/home.html
9. https://www.google.com/amp/s/wwww.newtral.es/leyes-aprobadas-espana-adoptadas-europa/20240604/%3famp

5

Faxismoa eta okupazioa



Gorago aipatu dugun moduan, aurreko zikloko bizi baldintzen desintegrazio bat ematen ari da. Irabaziak mantentzen jarraitzeko modu bakarra, langileriaren pobretzean sakontzea da eta hori langileria menderatu eta politikoki inpotente bat sortuz lortzen da, hau da, barbarie kapitalista modu gordinenean agertzen da. Bizi baldintzen suntsitze horrek, deskontentu bat sortzen du eta deskontentu hori klase jabedunaren interesen arabera kanalizatu beharra dago. Noren aurka kanalizatu behar da deskontentu hori? Egungo errealitatean lekurik ez duen horien aurka. Hau da, langileriaren estratu txiroenen aurka. Honek, iraganean, asko saiatuz gero, izan zezakeen sozialki eskalatzeko aukera, edo hori zen saltzen zen ideia. Baina, egun, horretarako baldintza guztiak ezabatu dira eta norabideak kontrako noranzkoa hartu du. “Denentzat tokia dago, asko saiatu sozialki eskalatu ahal izateko”-tik “ez dago lekurik denontzat, beraz, asko saiatu sozialki ez deseskalatzeko”-ra pasatu gara, lekurik izango ez dutenak eskalan beheren daudenak izango baitira. Faxismoak paper garrantzitsu bat jokatzen du deskontentu hori langileriaren kapa baxuenaren aurka kanalizatzeko orduan.

Faxismoak, klase borroka krisiaren produktu gisa erakutsi beharrean, klase borroka aurkezten du krisi kapitalistaren kausa moduan. Horrenbestez, klase borroka militante iraultzaileen eta gizarteko kapa baztertuenen kontu bat bezala aurkezten dute, eta horiek dira borrokatu beharrekoak. Hala, alderantzizkatuta erakusten duten errealitatean segurtasuna eta ordena bermatzen duten agente modura aurkezten dira horretarako espontaneoak diruditen eta epika heroiko batekin mozorrotuta doazen interbentzio ikusgarriak baliatuz. Honekin guztiarekin batera, aktibismoa ere bultzatzen dute, guztiek beraien eredua jarraituz gero segurtasuna berreskuratuko litzatekelakoan. Hau da, pentsaera errakzionarioa kale mailan aktiboki eta biolentziaren bitartez babestea eta inposatzea.

Programa hori aurrera eramateko, gezurrak eta boloak erabiltzen dituzte sistematikoki, errealitate distortsionatua sortu eta errakzioaren programa inposatu ahal izateko. Horrela, iraganeko ongizate nazionala berreskuratzeko ideian bilatzen du batasuna, ultranazionalismoan. Horrenbestez, jopuntuan jartzen dituenak ongizate nazionala berreskuratzea oztopatzen dutenak dira eta horiek “nazioaren etsaiak” eta “ordenaren etsaiak” dira.



Okupak dira Espainiako estatuan “etsai” nagusi horietako bat eta faxistek okupazioaren aurkako iniziatiba hegemonizatzea lortu dute. Hau da, okupazioaren aurkako diskurtso guzti horiek okupazioaren aurkako posizio hegemonikoa duten mugimendua indartzea dakarte eta, horrenbestez, faxismoak normalizatzea eta zabaltzea lortzen du okupazioaren aurkako ofentsibarekin.

Hala ere, faxismoak erabiltzen duen okupazioaren irudi estigmatizatu eta biolento hori, ez da orokorrean errealitatean ematen dena. Gai honi dagokionean, orain arte dauden ikerketa gutxietarikoek (bata Institut Cerdárena[1] eta, bestea, Obra Social Barcelonarena[2]) ondorengoa adierazten dute: Katalunian 2018an okupatzen ari ziren bizikide- tza-unitateen %93a pobrezia arriskuan zeudela eta Kataluniako eta Madrilgo autonomia erkidegotako etxebizitza agentziek ziotenez, 2017ko okupazioen %10-15 soilik kontsideratu litezkeela okupazio "gatazkatsuak". Beraz, ikus daiteke okupazio gatazkatsuaren argumentua, faxismoa justifikatzeko eta gorrotoa zabaltzeko falazia bat besterik ez dela.

Horrez gain, krisi garaian "denentzat" lekua egoteari uzten zaionez, "denentzat lekua dago"-ren aurpegi politikoa den sozialdemokraziaren proposamenak ere aukera politiko bezala indarra galtzen du. Hau da, sozialdemokraziak klase ertainari eskaintzen dion integrazio proposamenak ez dio eraginkortasunik erakusten desintegratzen ari den klase ertain bati eta, ondorioz, faxismoak oinarri sendo bat aurkitzen du desintegrazio prozesuan dagoen sektore zabal horretan. Okupazioaren arukako jarreren kasuan, gainera, sektore horietan eragiteko gaitasun handia du, ikusi dugun bezala, Espainiako estatuko biztanleriaren zati handi batek etxebizitza bat baitu jabetzan, eta nahiz eta ez diren asko beraien etxebizitza okupatu ahal diotenak, sortutako alarmismo guztiak harrera ona izatea ekartzen du.



Hori dela eta, okupazioaren gaiak faxismoa batzeko balio izan du Espainiako estatuan. 2022-ko Bonanovako kasua da horren erakusle garbia. El Kubo eta la Ruinako CSOA-en aurka Desokupa taldeko liderrarekin batera, Vito Quiles eta Europar hauteskundeetara aurkeztu berri den Albiseren gisako pertsonaiak elkartu ziren, okupazio mugimenduaren irudi paradigmatikoenaren aurka.

Faxismoa eta okupazioa erlazionatzen dituzten bi agente indartsuenak gaur egun, Vox bezalako alderdi politikoak eta Desokupa dira. Lehenengoei dagokienean, Alderdi Popularra eta Se Acabó La Fiesta bezalako alderdiak ere gehitu daitezke. Gorago ikusi ditugun okupazioen kontrako lege proposamenez gain, egunerokotasunean darabilte okupazioaren aurkako diskurtsoa ahotan eta kalera ere atera izan ohi dira okupatzen ari direnak zuzenean seinalatzera, Ortega Smith-ek egin izan duen bezala, adibidez. Alvisek ere, paper aktiboa jokatu izan du okupazioaren aurkako ideiak zabaltzerakoan. Bere sare sozialetako jardunaz haratago, Bonanovako kasuan, adibidez, Desokupako buruarekin batera egon zen eguna antolatzen.

Desokupazio enpresak, aldiz, mehatxuen bidez, koakzioen bidez eta orokorrean indarraren bidez desalojo extrajudizialak gauzatzen dituzten taldeak dira. Talde batzuk enpresa modura egituratuak daude, beste batzuk, aldiz, matoi talde



klandestino gisa. Nabaria da talde horietako kideek eskuin muturrarekin duten lotura, bai ultra mundukoekin, bai segurtasun-enpresekin, bai MMAkoekin eta abarrekin.

2016an sortu zen lehenengo enpresa eta egun 100 enpresatik gora existitzen dira. Merkatu zabal bat egin dute indar bidez desalojatzetik haratago. Adibidez, etxea zaintzeko segurtasun pribatuko zerbitzu gisakoak ematen dituzte, maizterrak bilatzeko zerbitzuak, interbentzio azkarrerako kit-ak saltzen dituzte, edota bigilantzia sistemen instalazioa egiten dute. Erakunde desberdinen partetik, errekonozimentu batzuk ere izan dituzte.

Adibidez, Premià de Dàlteko udaletxeak Desokupa enpresaren urteko zerbitzuak kontratatu zituen[3] edota PSDIk (Police Self Defense Instructors) domina bat eman zion Desokupa enpresako buruari[4].

Okupazioaren aurka antolatzetik hasi baziren ere, Club Desokuparekin irismena handitzea nahi dutela ikusi da. Defentsa pertsonalerako formakuntzak emateko talde honek, kaleko borrokarako eraso teknikak erakusten ditu gehiago eta hainbat hitzarmen sinatu ditu erakunde publikoei formakuntzak emateko, adibidez, SUPekin (Sindicato Unificado de Policías][5]. “Ordenaren etsaiak” diren horiek modu espontaneo eta injustifikatu batean zapaltzeko antolatzen ari dira.

Baina bi eragile hauek ez dira agente bakarrak. Cake Minuesa edo Vito Quiles bezalako pertsonaiek ere eskuartze zuzena izan dute. Hauez gain, “bizilagunen” protestak edota okupazioaren kontra mobilizatzen diren taldeak pentsakera faxista hori bere egin eta zabaltzen duten kaleko adierazpenak dira.

Gaur egun, gazteak eta etorkinak direnez orokorrean proletargoaren kapa zabalena osatzen duten sektoreak, horiek dira jopuntuan gehien jartzen dituztenak. Etorkinak beste milaka praktika ilegalekin lotuz eta bizikidetza haustearen erantzule izango balira bezala salduz. Eta bestetik, gazteak, orokorrean ideia politiko aurrerakoiekin lotuagoak egoten direnak.

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1. “La ocupación ilegal: realidad social, urbana y económica... un problema que necesita solución”. Hemen eskuragarri: https://www.icerda.org/es/producto/la-ocupacion-ilegal-realidad-social-urbana-y-economica# un-problema-que-necesita-solucion-pd
2. “Informe sobre la ockupación de vivienda vacía en Catalunya”. Hemen eskuragarri: https://obrasocialbcn.net/wp-content/uploads/2018/10/Informe_castellano_portada.pdf
3. https://www.newtral.es/ayuntamiento-premia-de-dalt-desokupa-conttrato/20221019/
4. https://www.elperiodico.com/es/politica/20231127/promotores-algaradas-ultras-amnistia-condecorados-medallas- policias-95130687
5. https://www.eldiario.es/politica/sindicato-unificado-policia-firma-desokupa-acuerdo-formacion-defensa-personal- 30-000-policias_1_11570235.html



6

Jabetza pribatua eta okupazioa



Gizarte kapitalista lanaren esplotazioan oinarritzen da eta jabetza pribatua, lanak ekoizten duen balioa esku pribatuetan metatzea ahalbideratzen duen forma juridikoa da. Beraz, jabetza pribatua da gizartean ekoizten den aberastasuna klase jabedunaren eskuetara bideratzea ahalbideratzen duena. Jabetza pribatua ez da bakoitzak berea den zerbait edukitzeko bitartekoa, apropiaziorako bitartekoa baizik. Hori dela eta, jabetza pribatua da elite ekonomikoak tendentzia oligarkikoak inposatzea ahalbideratzen duena eta klase ertainak proletargoaren kontura pribilegioak edukitzea ahalbideratzen duena.

Jabetza pribatua baliabide materialen erabilera irizpidea da, eta, ondorioz, jabetza pribatua gainditu ezean ez da espazioetarako sarbide aren arazoa gainditukо. Bere arrazionalitatea da alokairuen gorakada, jabetza kontzentrazioa, ia 4 milioi etxebizitza hutsik egotea, etxerik ez duen jendea dagoen bitartean etxe hutsak egotea lehenestea... Guzti horiek jabetza pribatuaren funtzionamendu normalaren ondorioak dira.

Okupazioa jabetza pribatuaren arrazionalitate horren salaketa bitarteko bat da, baina baita harekiko irtenbide bat ere. Irtenbide espontaneo bat, hilabete bukaerara ezin iristeak dakarren miseriarekiko irtenbide bat, baina baita haren kontra antolatzeko irtenbide bat ere. Eta askotan langile klaseak antolatu ahal izateko eta bere jardun politikoa garatu ahal izateko bide bakarrra izaten da. Parte-hartze politikorako askatasunaz edota elkartzeko eta antolatzeko eskubideaz hitz egiten bada ere, egiturazko ezintasun ekonomikoak hutsaren hurrengo bilakatzen ditu horiek. Horregatik bihurtzen da okupazioa ezinbesteko tresna langileriarentzat.

Okupazioaren eztabaida koordenatu berri batzuen inguruan ardazten hasi behar gara. Izan ere, jabetza pribatuaren koordenatuetan kokatzean bi muga ezartzen dira, eta ezkerreko nahiz eskuineko posizioak marjina horietan mugitzen dira. Jabetza pribatuaren koordenatuetan ematen den eztabaida marrazten duten mugak ondorengoak dira:

Lehenengo muga espazio bat erabili ahal izateko jabetza pribatuaren exijentziak betetzea da. Hau da, jabetza bat erabili ahal izateko, hura merkatu prezioan ordaindu behar da, edo haren jabe juridikoaren baimena behar da. Alegia, edo jabeek bere jabe posizioa baliatuz zure soldata arpilatzeari men egin, edota jabeen karitatearen menpeko izan. Izan ere, jabetza pribatuaren exijentziak ez dira espazioaren funtuntzio sozialaren arabera gidatzen. Are gehiago, funtzio sozial paradigmatikoa funtzio komertziala da jabetza pribatuarentzako.

Bigarren mugak jabetza pribatuaren tendentzia suntsigarriari kontra egitea eskatzen du: jabetza pribatua apropiazio bitartekoa bada, eta erabilera komertzial hori erabilera paradigmatikoa, jabetza kontzentrazio gero eta handiago batera garamatza horrek. Horren muga zein da? Etxebizitza ez dela alboratu

daitekeen luxu bat eta etxebizitzarik ez izatekotan aberastasuna sortzen duen biztanleriaren zati hori altxatu edo hil egingo litzatekela. Konstituzioan jasotzen den jabetza pribatuaren muga horren adibide da. Hark jabetza pribatuaren muga, abandonu egoera dela dio, jabe juridikoak bere jabetzaren egoeraz arduratu beharko lukeela, eta, beraz, espazio bat abandonatuta izanez gero, etxebizitza eskubideak pisu gehiago izango luke teorian, nahiz eta okupatuta egon. Baina noski, espekulaziorako etxebizitzak hutsik edukitzea ere erabilera komertzial bat da.

Bi muga horien artean ematen da egun eztabaida.

Ezkerreko adierazpenek jabetza pribatuaren lehen muga arintzea eta bigarren muga gogortzea eskatzen dute. Hau da, jabetza pribatuaren exijentziak betetzea, baina alokairu sozialak egotea, prezio maximoa mugatzea, prezioen igoera erregulatzea... Bigarren muga gogortzeari dagokionean, abandono egoeran dauden etxebizitzei zigor fiskalak ezartzea, jabe handiak kontsideratzeko jabetza kopurua murriztea eta abar eskatuko dute.

Eskuineko adierazpenek aldiz, lehen muga gogortzea eta bigarrena arintzea eskatuko dute. Jabetza pribatuaren exijentziekin betetzen ez duenari margenik ez ematea, okupazioaren kontrako neurriak jabe handietara zabalduz, inkiokupazioa okupazio kasu bezala tratatzea, prezioak ez mugatzea... Bigarren mugari dagokionean, tendentzia muga hori disolbatzea da.



7

Espazioen gaineko langile kontrola



Espazioen gaineko langile kontrola, jabetza pribatuaren printzipioekin talkan sartzen da. Langile kontrolpeko espazio bat, merkatuaren elkar-trukearekin apurtzen duen espazioa bat da; izan hura okupatu delako, izan borrokaren bitartez espazioaren erabiltzaile legitimoa izatea lortu duelako. Era berean, aurretik erabilera legitimoa duen espazio batean indarrez sartu eta unibertsalgarria den erabilera bat ematea ez da langile kontroltzat ulertuko. Horrela, ogia erostera joan den amonaren etxean sartu eta etxebizitza berri bat irekitzea ez da langile kontrolpeko espaziotzat ulertuko.

Horrez gain, espazioen funtzio sozialean zentratzen du garrantzia. Hau da, espazioen funtzio sozialak unibertsalgarria izan behar du eta langileriaren zuzeneko kontrol demokratikopean egongo da. Lehentasuna funtzio sozialean jartzean, jabetza pribatuak inposatzen dituen erabilera muga artifizialak gaitzesten dira. Alegia, funtzio sozial unibertsalgarri bat betetzen duen espazioren bat existitzen bada, ez luke espazio horrek funtzio hori betetzeko muga inposaturik izan beharko. Adibidez, etorkizunerako dituen planengatik espazioa hutsik mantentzen duen jabe juridikoaren nahia, muga inposatu bat izango litzateke, espazio horrek beharrezkoak diren beste erabilera batzuk izan ditzakeelako baina jabetza pribatuaren exijentziak ez betetzean mugatu egiten dituelako. Era berean, espazioei eman dakiekeen erabilera bat bere jabe juridikoaren erabilera komertzial batek ezinezko egitea ere muga inposatutzat ulertzen dugu. Langileriak bere interesetara egokituko den erabilera emango die espazioei, erabilera horien muga bakarra erabilera hori emateko espazio egokirik ez egotea izango litzateke.

Horrela, jabetza pribatuaren ondorio zuzenak direnak, espazioen gaineko langile kontrolaren ereduan existitzen ez diren arazoak dira. Adibidez, etxebizitza bat ordaindu ezin izanagatik etxerik ez duen familia bat egotea edota langileriak jardun politikoa gauzatzeko espaziorik ez izatea eta, ondorioz, jardun politikoa gauzatzeko askatasunik ez izatea eta, ondorioz, jardun politikoa gauzatzeko askatasunik ez izatea. Erabilera horiek bete ahal izateko jabetza pribatuaren exijentziekin hausten duten esperientziak langile kontroltzat ulertzen ditugu.

Etxebizitza okupatuak, gaztetxeak eta CSOAk, garbitegi sozialak, liburutegi okupatuak, langileek okupatutako lantegiak eta abarrak Langile Kontrolpeko Espazioak dira eta horien defentsan konprometitzen gara.

Ez da, inondik inora ere, zilegia espazioen jabetza esku batzuetan kontzentratzea eta beste batzuk jabetzatik guztiz kanporatzea; ez da zilegia, juridikoki jabetzaren titulua izateagatik langileriaren soldatak arpilatu eta pribilegioak proletargoaren miseriaren kontura eskuratzea; ez da zilegia, jabetza izateagatik zapalkuntza mota desberdinak erreproduzitzeko espazioak irekitzea, izan putetxeak, klase jabedunak langileria zapaltzen jarraitzeko instituzioak, langileria esplotatzeko zentro produktiboak eta abarrak; ez da zilegia, lan indarra saltzeagatik jabetza sozialera sarbiderik ez izatea baina lan indarra esplotat-

zeagatik jabetza pribatura sarbidea izatea; eta ez da zilegia, zilegi ez den guzti horri estalki legitimo bat jartzen dion zuzenbidearengatik bakarrik, espazio baten erabilera (edo erabilera eza) justifikatzea.

Beharrezkoa da jabetza pribatua problematizatzea eta haren defentsan abiarazten diren dinamikak borrokatzea, adibidez, okupazioaren kontrako ofentsiba borrokatzea. Jardun honen kontrako aurpegi bezala beharrezkoa ikusten dugu okupazioa fenomeno legitimotzat defendatzea, beti ere, langile kontrolaren printzipioak betetzen badira. Horrela ez bada, garrantzitsua da okupazio ilegitimo kasuak salatzea, baina ez okupazio izateagatik, espazioari ematen zaion erabilera langileriaren aurkakoa izateagatik baizik. Adibidez, narkopisoak, talde faxisten aktibitaterako espazio okupatuak edo emakumeen explotazio sexualerako espazio okupatuak. Okupaziotik etekin ekonomikoa ateratzea bilatzen duten taldeak ere gaitzetsi egiten ditugu eta seinalatu beharreko agenteak iruditzen zaizkigu.



8

Ondorio politikoak



Klase agintariak, gizarte justuago eta askeago bat lortzeko egungo krisi eta miseria egoera nola gainditu bilatu beharrean, indar gehiagorekin heltzen dio pribilegioak bermatzen dizkion sistemari. Guztia gizarteko kapa zabalenen kontura. Horretarako, krisiaren errua proletargoaren gain jartzen du, miseria gehien pairatzen dutenei miseriaren erantzukizuna egotziz eta, aldi berean, miseria handiagora kondenatuz burgesiaren irabazi beherakorren izenean.

Norabide horretan, okupazioaren aurkako erasoaldi bat abian dela argi ikusi dugu. Honek, ondasun higiezinen legez kanpoko usurpazioa ez ezik, jabetza pribatuaren eskakizunei kontra egiten dion edozein zantzu kriminalizatzea du helburu. Zentzu honetan, tentakulu juridikoetatik haratago, tentakulu politiko, polizial, mediatiko eta enpresarialak hedatu ditu, eta usurpazioaz, inkiokupazioaz eta elkartasunaz harago, oro har, pobrezia eta antolaketa kriminalizatu ditu.

Okupazioaren aurkako ofentsiba, beraz, klase jabedunak proposatutako irtenbidearen zati bat da, baina ez du bere horretan erabat agortzen. Irtenbide hori gorpuzten duen beste formetako bat da. Okupazioak diskurtso faxistan jokatzen duen papera guzti horren erakusle garbia da.

Azpimarratu behar da, gainera, okupazioak duen irismena ordaindu ezin duen familia bati etxe abandonatu bat hornitze hutsetik harago doala. Okupazioaren potentziala, eta aldi berean burgesiarentzako arriskua, espazioetara sartzeko aukerak jokatzen duen gizarte aglutinatzailearen gaitasuna da. Honako hau, langileriaren klase kontzientziazioarekin batera, sua piztuko duen txinparta izan liteke. Zentzu horretan, bestalde, okupazioa da, kasu askotan, langile klaseak elkartzeko eta biltzeko eskubidea gauzatzeko duen bide bakarra. Langile klasearentzat funtsezkoa da desjabetuen interesen alde lan egiten duen edozein kolektiboren antolatzeko aukera aldarrikatzea eta defendatzea. Eta, horregatik, nahitaezkoa da antolaketa hori ahalbidetzen duten okupazioa eta okupatutako espazioak defendatzea.

Okupazioaren aurkako ofentsiba, beraz, klase agintariak sustatua da eta krisiak eragindako paradigma-aldaketa gauzatzearen beste adierazpen bat da. Aldi berean, espazioetarako sarbidea bezalako gai erabakigarri batean, klase elkartasunari aurrea hartzen dion kontentzio mekanismo bat ere bada.

Gure eginbeharra ere bi aspektu horietatik bideratu behar da, baina burgesiaren erasoaldiarekiko kontrapisu lana eginez. Alde batetik, espazioen gaineko kontrol burgesa problematizatu behar da. Langileriak argi ikus behar du okupazioaren kriminalizazioa langileriaren kontura jabeen interesak babesteko modu bat dela, eta, horrela, langileria estutzen jarraitzeko aukera ziurtatzen dutela. Horren aurrean, espazioen gaineko langile kontrola aldarrikatuko dugu, eta langile klasearen desartikulazioaren testuinguru honetan okupazioa burgesia desjabetzeko modu gisa defendatuko dugu.

Beste alde batetik, beharrezkoa da langile klasearen elkarguneak ahalbidetzeko espazioak irekitzea eta sozializa tzea. Langile kontrolpeko espazioek langileria antolatuaren proiektuak barnebiltzeko gaitasuna dute. Era berean, militantzia-eskola zein heziketa politikorako zentroak izateko gaitasuna dute, proiektu horiek dituzten printzipio emantzipatzaileak normalizatu eta orokortu ditzaketenak. Hala, espazioen sozializazioak ezinegon antolatuaren irismena hedatzen du, eta, nolabait, langile klaseak espazioaren kontrolaren auzian gauzatzen duen proiektua materializatzen du: langile kontrolpeko espazioak, hain zuzen.

Espazioen auzian gero eta murriztaileago den errealitate honi aurre egin behar dioten kolektibo guztientzat, bi gai hauek dira indarrak batzeko gutxienekoak: jabetza pribatuaren aurrean okupazioaren defentsa batetik, eta langile klasearen antolakuntzarako eskubidearen defentsa bestetik. Gaztexeek, zentro sozial okupatuek, erakunde eta kolektibo ezberdinek dituzten espazio okupatuek edota okupazioa exigitzen duen edozein adierazpenek beren espazioak defendatzeko premia partekatzen dute, izan

bizitzeko etxe bat izateko zein antolatzeko gune bat bermatu ahal izateko. Hau horrela, indarrak batzeko eta okupazioaren aurkako ofentsibaren adierazpen guztien aurka borrokatzeko deia egiten dugu.



Langile kontrolpeko espazioak defendatu!

Okupazioaren kontrako ofentsiba borrokatu!



